

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2015-12-17 Lekua: Santa Klararen Jauregia. Ordua: 17:00 –18:30

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu

Gizatiar: Marisa Pedrero, Begoña Fernández

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Roda: Clara Lorenzo

Bildu: Arantza Gutierrez

Ciudadanos-Herritarrak: Jesús Ibarreche

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo

Udal Talde Sozialista: Josefina García

ELA: Elvira Lemona

Berritzegune: Ana Sofia Gutierrez Arnaiz

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

Ez dira bertaratu:

Talde Popularra

Aztergai-zerrenda

- Aurreko batzarreko akta onartzea
- Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren (A 25) balorazioa
- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman daitezkeen erantzun publikoak baloratzea.

- III. Berdintasun Planaren ebaluazioa
- Kontseiluko kideei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta aho batez onartu da. Gizatiarreko ordezkarietako baten izena sartuko da, akats baten ondorioz ez baitzen sartu.

Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren (A 25) balorazioa

Berdintasun zinegotziak talde guztiei eskatu die Azaroaren 25aren inguruan egindako jardueren balorazioa egin dezatela.

Gizatiarrek jakitera eman du urte guztietan bezala elkarretaratzea egin dutela eta adierazpena irakurri dutela. Aurtengoan, gainera, kartelak prestatu dituzte, 2015. urtean hildako emakumeen izen, adin eta bizilekuekin. Uste dute parte hartu duen pertsona kopurua aurreko urteetako kopuruaren antzekoa izan dela. Haien balorazioa da beti dela berdina. Errutina sentsazioa daukate, eta ez duela askotarako balio.

Berdintasunari buruz antolatu zuten hitzaldiari dagokionez, informazioa oso oinarrizkoa izan zen. Balorazioa oso ona izan zen. Hitzaldia egitean materiala eman zuten, edukiarekin.

PSEk esan du beti bezala lila koloreko lazoak banatu zituztela Bilboko Gran Vían. Bere buruari galdetzen dio zerbaitetarako balio ote duen, gizonak emakumeak hiltzen jarraitzen baitute. Erantsi du emakume matxista asko dagoela eta matxismo hori emakumeei euren seme-alabei traspasatzen dietela.

Berritzeguneak jakitera eman du testu bi banatu zirela, lehen eta bigarren hezkuntzan lantzeko. Zentro guztiek, publiko nahiz pribatu, jardueraren bat egin dute testu horiek edo beste material batzuk erabiliz.

Bilgune Feministak oso balorazio positiboa egin du Mujeres con Voz eta Haziak-ekin batera antolatutako manifestazioaz. Bertan indarkeria matxista salatu zuten, eremu guztietan gertatzen dena, ez bakarrik etxean. Prekariotasunari, indarkeriari eta maitasun erromantikoari buruzko ekintzak egin zituzten. Era berean, Fadurako aldagelan aurkitutako kamera ezkutua aipatu dute. Uste dute gertaera hau patriarkatuak sortzen duen indarkeriaren emaitza dela.

Haien helburua mugimendu feminista sendotzea da, arazo eta jatorri ezberdinak dauzkaten emakumeak bilduz.

Mujeres con Voz-ek *El camino Belinda* antzerki-foruma antolatu zuen. 30 lagun inguru etorri ziren; denek ondoko eztabaidan parte hartu zuten. Pena handia eman

zien etxeko lanari buruzko hitzaldira joan ezin izatea, beren jardueraren ordu berean egin zelako.

EH Bilduk jakitera eman du Bozeramaileen Batzarraren bilera egiteko eskaera egin zutela, Faduraren gaia aztertzeko (gai horri buruz egiten duten irakurketa feminismitik abiatzen da), baita prostituzioan lan egitera behartu dutela salatu duen adingabekoaren kasuaz hitz egiteko ere. Horri buruzko adierazpen bat onartu zen. Arratsaldean ez ziren deialdietara joan, osoko bilkura zeukatelako. Osoko bilkura hartan adierazpen instituzionala onartu zen, talde honen babesarekin. Erantsi du webgunean irakurketa zabalagoa egin dutela, tratu txarretatik harago doana.

Bilduren ordezkaria etxeko lanari buruzko hitzaldira joan zen. Oso interesgarria zela iruditu zitzaion, baina ezin izan zuen eztabaidan egon.

Udalak antolatutako jardueri dagokienez, berdintasun teknikariak parte hartzeari buruzko zenbait datu eman ditu:

- *Ez gara Palestinaz ari*: 90 lagun.
- *Género, juego de máscaras. Habitar el cuerpo*: 10 emakume eta 4 gizon zeuden izena emanda. Azkenean 8 emakumek eta 2 gizonek parte hartu zuten. Balorazioak oso onak izan ziren, eta zenbait parte hartzailek Berdintasun Zerbitzura idatzi zuten, tailerragatik eskerrak emateko.
- Bisitaldi gidatuak Marikaren komikiko erakusketan zehar: gaztelaniaz 10 emakume, eta euskarazkoa bertan behera geratu zen, ez zelako jenderik etorri.
- *La máquina del dueño*, antzerkia: 91 lagun etorri ziren (34 sarrera eta 57 gonbidapen)
- Gazteentzako eleberri erromantikoei buruzko hitzaldia: 15 lagun
- Etxeko langileen eskubideen urraketei buruzko hitzaldia: 13 lagun

Bilgune Feministak esan du jarduera gehiegi direla aste bakar batean egiteko, denboran luzatu beharrean. Pena handia da jendea jarduerak egiteko ekartzea eta gero inor ez etortzea.

Berdintasun zinegotziaren ustez, arazoa da ekintza guztiak egun jakin baten inguruan egiten direla. Denboran luzatzen bada (bera ados legoke), antzeko zerbait gerta liteke. Eta elkarte bakoitzak bere jarduerak bultzatu gura baditu (berak zilegi deritzo) eta udalak bereak ere egin nahi baditu, gauza bera gertatu ahal zaigu. Publikoa berbera da, eta uste du jendea erakartzeko gaitasun mugatua dagoela.

Bilgune Feministak uste du matxismoaren aurka urte osoan jo behar dela, agendak bateratuz eta gehiago konpartituz. Uste du sarean lan egin behar dela eta kutsatu;

pena da baliabideak honela xahutzea. Uste du urte osoan zehar lan egin litekeela, A 25 indartsu bat prestatzeko.

Berdintasun zinegotziak uste du hori egiten ari dela.

Gizatiarrek balorazio positiboa egin du martxoaren 8an zenbait elkartek elkarrekin antolatu zuten jardueraz. Bilduk ekintza horri buruzko balorazio oso positiboa egin du, baita gerora egin zen Women in Black jardueraz ere.

Jardueren balorazioekin jarraituz, Eskuz esku-k uste du Josune Muñozen hitzaldietara jende asko etorri ohi den arren Liburutegian eman zuen hitzaldian, gazteentzako eleberri erromantikoei buruzkoan, parte hartzea ez zela hain handia izan, horrelako literatura-hitzaldietara etortzen direnak emakume nagusiak izaten direlako batez ere, eta gazteentzako eleberrien gaiak, ziurrenik, ez zielako interesik piztu. Mujeres con Voz-ek gaineratu du hitzaldi hau egin zenean Kolonialismoaren Osteko Feminismoen Eskolaren tailerra egin zela, eta bertan egon ziren zenbait emakumek hitzaldira joan nahi zuten arren ezin izan zutela.

Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriako kasuen aurrean eman daitezkeen erantzun publikoak baloratzea.

Berdintasun zinegotziak jakitera eman du ez dela astirik egon Kontseiluaren batzar honetarako zirriborro bat prestatzeko, baina Berdintasun Zerbitzuak proposamen bat prestatuko duela urtarrilerako. Uste du hobe dela dokumentu batekin etortzea eztabaidarako, eta ez folio zuri baten gainean eztabaidatzen hasia.

Bilduk esan du zerotik lanean hasiz gero euren protokoloa eman ahal dutela. Berdintasun zinegotziak erantzun dio ez dela zerotik hasiko, Eudelen materiala baitago. Material horretan, erasoen eta tratu txarren kasuak nola jakitera ematen azaltzen da.

III. Berdintasun Planaren ebaluazioa

Berdintasun zinegotziak jakitera eman du III. Planaren ebaluazio-dokumentua, parte hartze handiz eginga, helaraziko dela. Gogora ekarri du, era berean, Berdintasun Zerbitzua diagnostikoa eta plan berria kontratatzen ari dela.

Urtero bezala, 2016. urterako lan plan bat aurkeztuko da, orain arte landu diren ildo estrategiko berberak edukiko dituena: erantzunkidetasuna, jabeakuntza eta emakumeen aurkako indarkeria.

Kontseiluko kideei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea

Berdintasun zinegotziak gogorarazi du Mujeres con Voz-ek puntu hau aztergaien zerrendan sartzeko eskatu zuela; beraz, euren proposamena azaltzeko eskatu die. Mujeres con Voz-ek erantzun dio aurreko urtean Kontseiluko pertsonari prestakuntza

eman beharraz jardun zutela baina azkenean ez zutela ezer egin. Uste du, profil ezberdinak daudenez gero, prestakuntzak eztabaida modu berdinduagoan egitea ahalbidetuko lukeela.

Berdintasun zinegotziak erantzun du Kontseilu honetan alderdiak, erakundeak eta elkarteak daudela, guztiak ere ezberdinak eta ideologia ezberdinekin. Erantsi du aurreko aktetan prestakuntzarako proposamen hau bilatu duela eta ez duela aurkitu, baina uste du Mujeres con Voz izan zela proposatu zuena. Era berean, zenbait galdera egin ditu: nola artikulatzen da? noraino iritsi nahi dugu prestakuntzarekin? nork erabakitzen du prestakuntzan parte hartu ala ez? pertsona bakoitzak erabakitzen du? ze gai aztertzen dira? Gainera, bere iritziz, ez da kontseilu baten eginkizuna bere kideak prestatzea.

Mujeres con Voz-ek erantzun du formatua modu kolektiboan sortu beharko litzatekeela.

Bilgune Feministak aktetan bilatu du eta ez du aurkitu, baina uste du hau formulatu zen testuingurua izan zela Ingurumen Foroan prestakuntza ematen dela azaldu zen momentua. Berdintasun zinegotziak erantzun du foro horretan ez dela informazioarik ematen baizik eta zenbait aditu etortzen direla hainbat gai azaltzeko. Bilgune Feministak uste du garrantzitsua izango litzatekeela Berdintasun Kontseilura adituak ekarri ahal izatea gai zehatzak aztertu ahal izateko.

Berdintasun zinegotziak uste du prestakuntza ez dela neutrala. Kontseiluan ideologia ezberdinetako pertsonak daude, eta prestakuntza ematen duen pertsonaren arabera modu batekoa edo bestekoa izango da, batez ere antolatzen diren jarduerekin gertatzen ari dena ikusita.

Bilduk gogora ekarri du Eudelek prestakuntza ematen diela zinegotziei; enpresa bat ekartzea erabakitzen bada interesgarria litzateke prestakuntza planari lotuta egotea. Era berean, proposatu du, Ingurumenean hala egiten baldin bada, adituak ekar daitezela hona gai jakin batzuk jorratzeko, gero gaiak jantzita egonda iritzia eman ahal izateko.

ELAren ustez, lana alderantziz egiten da. Kontseiluan parte hartuko zuela jakin zuenean, bera bere sindikatuarekin prestakuntza jasotzeaz arduratu zen, uste baitzuen pertsonak prestatuta etorri behar zirela eta taldeek prestatu behar dituztela bidaltzen dituzten pertsonak.

EAJren ordezkariak Gizatiarri galdetu dio zenbat denbora daramaten beraiek kalean berdintasuna sustatzen; dagoeneko ibilbide bat egin dutela.

PSEren ordezkariak esan du bera berria dela eta etxeakoandrea dela, eta ikastea den oro interesatzen zaiola.

Berdintasun zinegotziak erantzun dio berak ez dioela prestakuntza ez denik interesgarria jendearentzat, baizik eta nola artikulatu behar den hori. Erantsi du

hau Kontseilu bat dela. Ez daki udalak baliabide teknikoak eta denbora inbertitu behar dituen kontseiluko kideak prestatzeko, bakoitza bere erakundearen erabakiz baita kontseilu honetako kide. Berak uste du parte hartzen duten pertsonen prestakuntza eginda ekarri behar dutela, baina hemen dauden pertsona guztiek ez daukate ezagutza eta ikuspegi berdinak. Uste du prestakuntza oso teknikoa bada ondo dagoela, baina gainerako guztiak kutsu ideologikoa daukala. Uste du, edozein kasutan, prestakuntza balego herritarrentzat edo Kontseilua osatzen duten elkarte eta eremuentzat irekita egon beharko litzatekeela, baina ez dela prestakuntza zehatz bat eskaini behar Kontseiluko gaur egungo kideentzat.

Bilduk proposatu du HAPOa berrikusteko lantaldeekin egin den bezalaxe egin beharko litzatekeela. Hau da, indarkeria kasuei erantzuteko protokolo bat egiteko asmoa badago prestakuntza jasotzea garrantzitsua da.

Berritzeguneko ordezkariak adierazi du Kontseiluan parte hartzea proposatu zitzaionean oso interesgarria iritzi ziola eta argi duela erakunde gisa egiten duela. Hau da, ez du ekarpenik egiten maila pertsonalean, baizik eta batzuetan erkatu behar dituela. Uste du ez diola inork ezetz esango prestakuntza bati baina ez du ikusten Kontseilurako bakarrik prestakuntza egiten denik. Uste du asmoa ez dela denok gauza bera esatea edo pentsatzea, elkarte eta talde oso ezberdinak baitaude. Besterik da ideiak konpartitzea eta errespetuz egitea.

Guk-ek uste du prestakuntza ez zaiola gaizki etorriko inori. Berdintasun politikak denboran nolakoak izan diren erreparasatzea ondo egongo litzateke.

Eskuz esku-k esan du garrantzitsua dela jakitea nondik gatozen eta interesgarria izan daitekeela Emakunderen berdintasun planak nolakoak izan diren berrikustea.

Berdintasun teknikariak planteatu du Kontseilu bateko pertsonen prestakuntza ematea ohikoa dela eta Emakundek eta beste erakunde batzuek sustatzen dutela. Uste du Kontseiluak berdintasun politiken jarraipena egin behar badu oinarritzko prestakuntza behar duela, eta ez litzatekeela bereziki ideologizatu egon beharko. Are gehiago, Emakunderi konpartitzeko eskatu ahalko litzaioke. Zenbait gai proposatu ditu: berdintasun eza gertatzen den eremuen ikuspegi orokorra eskaintzea eta nola agertzen den ikustea, oinarritzko kontzeptuak ezagutzea, berdintasun politiken eboluzioa zein izan den jakitea, eta emakumeentzako politikak egitetik politika horiek zeharkakotasunarekin uztartzen dituzten politikak egitera zergatik igaro garen aztertzea etab.

Erantsi du, bere ustez, elkarte batek eskubide osoa daukala prestakuntza eman dadila proposatzeko, proposamen osatuago bat izan gabe prestakuntzaren edukiei edo formatuei buruz, horiek kontu teknikoagoak baitira. Azkenik, esan du Kontseilu honek berezitasun bat daukala: emakumeen elkarrekin gain alderdiek parte hartzen dutela. Hori, haren ustez, ezinegonaren eta sortzen diren tentsioen oinarria da.

Roda elkarteak beste kontseiluak nolakoak diren galdetu du. Berdintasun teknikariak mota askotakoak daudela erantzun du: batzuetan emakume elkarteek bakarrik parte hartzen dute, beste batzuetan badaude beste eremu batzuetako elkarteak ere, edo adituak, edo banaka parte hartzen da, edo gizonek parte hartzen dute. Finean, oso anitza da baina ez ohi da egoten alderdi politikorik. Erantsi du Kontseiluan alderdi politikoen parte hartzerik gabe jarduteko proposamena ez zela izan alderdien proposamena, baizik eta Enclave de ciudadanas por Getxo elkartearena.

Berdintasun zinegotziak zehaztu du Gasteizko Kontseiluan alderdiak ere badaudela eta uste du gainerako hiriburuetan ere hala dela.

Berdintasun teknikariak azaldu du Eskuz eskuk eta Gizatiarrek planteatu dutela interesgarria dela proposatu den prestakuntza mota egitea. Berdintasun zinegotziak erantzun die ez liokeela gaizki iritziko prestakuntza egiteari baldin eta elkarteetako beste pertsona batzuk ere etorri ahalko balira, eta ez Kontseiluko kideak bakarrik. Amaitzeko, adierazi du iritzi guztiak entzun ondoren Berdintasun Zerbitzuak erabakiko duela gai honekin zer egin.

Galde-eskeak

Bilgune Feministak galdetu du nola dagoen diru-laguntzen gaia. Berdintasun teknikariak gogora ekarri du, lehenik eta behin, justifikaziorako epea otsailaren 28an amaituko dela. Hurrengo deialdiari dagokionez, lehenbailehen ateratzen saiatuko dira, zenbait arlok (adibidez Gizarte Zerbitzuek) deialdia onartu dutelako dagoeneko. Diru-zenbatekoari dagokionez, aurreko urtekoaren berdina izango da: 16.317 euro 1. lerrorako (emakume elkarten jarduera arruntaren funtzionamendua edota mantentzea) eta 6.993 euro 2. linearako (berdintasunaren aldeko proiektuak).

Bilgune Feministak galdetu du ez ote dagoen modurik diru-laguntzetarako diru gehiago emateko. Zenbait elkarteren artean lokal bat alokatzeko proiektuarekin daude; hori balizko emakumeen etxearen hazia izan liteke, Ahalduntze Eskolaren lokala oso txiki geratzen baitzaie.

Mujeres con Voz-ek galdetu du ia Kontseilua den aurrekontuak ikuskatzeko espazioa, edo ia berdintasunerako aurrekontua zertan gastatu erabaki daiteken. Berdintasun zinegotziak erantzun die talde politikoak direla osoko bilkuran udal aurrekontua erabakitzen dutenak; beraz, beraiei galdetu ahal die. Esan du, gainera, Kontseilua ez dela aurrekontu hori zein edo nolakoa izan behar den erabaki ahal duen foro bat.

Guk-ek esan du harrigarria suertatzen zaiola 23.000 euro bakarrik egotea Berdintasunari ez ezik Parte Hartzeari dagokion gai batean.

Berritzegunearen ordezkariak galdetu du ikastetxeak ere deialdi horretara aurkeztu ahal diren. Berdintasun zinegotziak erantzun dio 2. lerrora aurkeztu ahal direla. Berdintasun teknikariak uste du 2. lerrorako hain diru gutxi badago eta ikastetxeak aurkezten badira dirua ez dela ezertarako iritsiko.

Bilgune Feministak esan du hau leku ona dela alderdien eta elkarteen artean iritziak trukatzeko. Udal aurrekontu hori nola erabakitzen den jakin gura du.

Berritzegunearen ordezkariak uste du ez dela Kontseiluaren lana aurrekontua nola egiten den azaltzea.

Bilgune Feministak galdetu du foro hau bakarrik ote den A 25ari, martxoaren 8ari eta horrelakoei buruz hitz egiteko.

Berdintasun zinegotziak erantzun dio Kontseilua, haren araudiak jasotzen duenez, berdintasun politiken aholku-organoa dela, eta gobernu taldean dagoenak erabaki egokiak hartuko dituela, Kontseilua ez baita erabaki lotesleak har ditzakeen organo bat. Aztertzen diren gaiei dagokienez, gogora ekarri du ez direla bakarrik kanpainak aztertzen, baizik eta Berdintasun Zerbitzuaren eta Berdintasun Planaren urteko ekintza guztien jarraipena egiten dela.

Bilgune Feministak galdetu du orduan non eskatu behar den berdintasunerako aurrekontua areagotu dadila.

Bilduko zinegotziak aurrekontua nola egiten den azaldu du, motzean: gobernu taldeak proposamen bat egiten du eta gainerako alderdi politikoei banatzen die. Alderdiek proposamenak egiten dituzte eta partidak negoziatzen dira, osoko bilkurara iritsi baino lehen. Osoko bilkuran onartzen da. Era berean, gogora ekarri du Getxok zenbait urte daramatzala aurrekontu luzatuarekin, ez delako akordiorik lortu.

Eskuz esku-k esan du kontuan izan behar dela leku batean gehiago jartzen bada beste batetik kendu egin beharko dela. Berdintasun teknikariak esan du proiektuetarako berdintasun aurrekontua oso murrizta dela eta Getxo Kirolak diru-laguntzetarako deialdiaren milioi bat eurotik gorako zenbatekoarekin erkatu du. Bertan, 2015ean, 100,00 euroko partida egon da (9. lerroa), klubek beren kamisetetan Getxoko logoa jarri ahal izateko, Europako kirol hiririk onena dela-eta. Berdintasun zinegotziak erantzun du klubek ekipamendua berriztatzeko diru-laguntza bat zela, aurten egitea egokitu zena, eta diru-laguntzan logo hori sartzen dela. Azkenik, berak uste du aurrekontuen gaineko eztabaida ez dela Kontseilura ekarri behar. Gainera, horrek alderdiei espazio honetan ez dagokien protagonismoa emango lieke.

Guk-ek galdetu du zergatik jarri den Kontseiluaren araudian elkarte batek urtebete eduki behar duela Kontseiluan sartu baino lehen.

Berdintasun zinegotziak erantzun dio horrela galarazi nahi dela elkarte bat sortzea, Kontseiluan sartzeko eskatzea, eta gero desagertzea. Kontseiluan sartzen den orok nolabaiteko ibilbidea izatea nahi da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da.

Hurrengo batzarra urtarrilaren 14an izango da.